



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010ko UZTAILA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

**MUSIKAREN ETA
DANZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA
Y DE LA DANZA**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

A AUKERA

1. atala. Iruzkina eta analisisia (5 puntu).

8. kontzertua, Op. 6, *Fatto per la notte di Natale*, A. Corelli

2. atala. Musikaren eta/edo dantzaren historiari buruzko testu labur bati buruzko iruzkina (2,5 puntu)

Hautatu testu hauetako bat:

- a) Gustav Mahler-ek Richard Strauss-i idatzitako gutuna
- b) Alejo Carpentier-en "Balletaren goraldia"

3. atala. Definitu musika-termino hauek (2,5 puntu):

1. Sonata-forma
 2. Zelula
 3. Eskala kromatikoa
 4. Obertura
 5. Akordea
-

B AUKERA

1. atala. Iruzkina eta analisisia (5 puntu).

Udaberriaren sagarapena. Udaberri-zantzuak: Neska gazteen dantza,
I. Stravinski

2. atala. Musikaren eta/edo dantzaren historiari buruzko testu labur bati buruzko iruzkina (2,5 puntu)

Hautatu testu hauetako bat:

- a) Gustav Mahler-ek Richard Strauss-i idatzitako gutuna
- b) Alejo Carpentier-en "Balletaren goraldia"

3. atala. Definitu musika-termino hauek (2,5 puntu):

1. Tema edo gaia eta bariazioen forma
2. Bitartea
3. Eskala diatonikoa
4. Zifratua
5. Ostinatoa

**MUSIKAREN ETA
DANZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA
Y DE LA DANZA**

a) testua

Musika eta hitzak: Musikagile garrantzitsuen gutun hautatuak

Gustav Mahler-ek Richard Strauss-i

Vienan, 1905eko urriaren 11n

Lagun hori:

Egia tristea da. Are gehiago: zentsurak errefusatu du jada.

Horregatik bakarrik, Salome urtarrilerako edo, agian, otsailerako uztea pentsatu dut. Kezka horiek uxarazi nahi nizkizun, *premièreak* sorrarazi dizun poza ez zapuzteko. Gainera, espero nuen —eta oraindik ere espero dut— Dresden-go gorteak, hain katolikoa izanik, baimena emateak eragin handia izango zuela hemen. Horrenbestez, arren eskatzen dizut isilik egoteko denbora batez; idatz iezaiozu Simons-i esanez Errege Operak emanaldia baztertzen badu Jubiläumstheater-ekin hitzarmen bat lortzeko aukera egongo litzatekeela. Utz iezaidazu gutuna egun batzuetan. Beharbada, (ezusteko) arma izango da borroka desorekatu honetan.

Strauss maitea, esan behar dizut zure obrak ikaragarri hunkitu nauela azken irakurketan. Zure maisulana da! Ezin da konparatu orain arte sortu duzun ezerekin ere. Badakizu ez dudala atsegin tontokeriatan ibiltzea. Eta zurekin, are gutxiago. Baina, oraingoan, esan egin behar dizut. Nota bakoitza bere lekuan! Aspalditik nekien: dramaturgo izateko jaioa zara. Aitortu behar dizut Wilde-ren obra ulertzera heldu banaiz zure musikari esker izan dela. Dresdengo *premièrean* egongo naizela espero dut. Esan iezaidazu nire kanpaina-planarekin ados zauden ala ez. Hitzematen dizut baliabide guztiak erabiliko ditudala eta tinko egingo dudala borroka maisulan paregabe eta original honen alde.

Adeitasunez eta denboraz larri,

Agur bero bat.
Gustav Mahler

Erreferentzia:

Esteve, R. (2001). *Música y Palabras: Cartas escogidas de los grandes compositores*. Bartzelona: Océano



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010ko UZTAILA

**MUSIKAREN ETA
DANZAREN HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2010

**HISTORIA DE LA MÚSICA
Y DE LA DANZA**

b) testua

Balletaren goraldia (1954)

Alejo Carpentier-en *Ese músico que llevo dentro* liburutik itzulia (31. or.)

Gure garaian balletaren garapen ikaragarria gertatzen ari da. Ez dut esango beraren adierazpen gero eta dibertsifikatuagoetan kalitatea beti bat denik. Baina bada egiazko datu bat: koreografiaren artea edonon loratzen da, eta ahalegin-aniztasun bikain baten ikuskizuna eskaintzen digu.

Izan ere... zer zen balleta, Errusiatik kanpo, mende honen hasieran? Denbora-pasa akademiko huts bat, operako egitarauak osatzeko erabilia, "festa-amaiera" gisako bat, edo operan txertatzeko erabilia partiturak *Walpurgis gau* bat, *Kermesse* bat edo *Orduen dantza* bat behar zuenean. Parisko, Londresko edo New Yorkeko antzoki liriko handiek geldirik zituzten dantzariak, teknika aldagaitzak ustiatzen, eta haien erreperorioan *Coppelia*, *Sylvia* eta Lalo-ren *Manana* gisako obrak baino ez zeuden ia-ia. Balletak, eboluzio- eta bilaketa-prozesuan zegoen genero bizi gisa, San Petersburgoko edota Moskuko antzoki inperialetan bakarrik zituen berezko agertokiak —Europako Mendebaldetik urrun, eta, beraz, publikoak ez zekien emanaldi zoragarri haiek egiten zirenik eta dantzari bikainak zeudenik, hala nola Karsavina, Pavlova eta Nijinski—.

Serge Diaghilev animatzaile apartak atera zituen artista haiek beren eremutik, eta bitzta berria eman zion balletari. Lehenengo unetik, eskola modernoenetako margolariengana jo zuen, bai eta musikagile ausartenengana ere, mugarik gabeko dantza bat sortzeko; urte gutxian, *Suzko txoria* balletetik Erik Satie-ren *Parada* lanaren *music-hall* estetikara pasatu zen: *Pulcinelaren* neoitalianismotik, Prokofiev-en *Altzairuzko pasaguneraino*, Manuel de Fallaren hispanismoa ahaztu gabe.

Erreferentzia:

Carpentier, A. (1988). *Ese músico que llevo dentro*. Habana: Editorial Letras Cubanas

CONCERTO VIII.

Fatto per la notte di natale.

Vivace.

Concertino.
Violino I.
Violino II.
Violoncello.

Concerto grosso.
Violino I.
Violino II.
Viola.
Basso.

Grave. Arcate sostenute e come sta.

This section contains two systems of musical notation for guitar. Each system consists of a grand staff (treble and bass clefs) and a line of guitar tablature below it. The tablature uses numbers 1-6 and includes accidentals like sharps and flats. The first system's tablature is: $\sharp 6 7 6 \quad 3 4 4 5 \quad 9 8 \quad 3 4 \quad 5 \quad \flat 4 6 \quad 7 6 \quad \sharp 4 \quad 5 \quad 4 \sharp$. The second system's tablature is: $\sharp 6 7 6 \quad 3 4 4 5 \quad 9 8 \quad 3 4 \quad 5 \quad \flat 4 6 \quad 7 6 \quad \sharp 4 \quad 5 \quad 4 \sharp$.

Allegro.

This section contains two systems of musical notation for guitar. Each system consists of a grand staff (treble and bass clefs) and a line of guitar tablature below it. The first system's tablature is: $6 \quad 5 \quad \sharp \quad 6 \quad 5 \quad \sharp \quad 6 \quad 5 \quad 3 \quad 6 \quad 5 \quad 3 \quad 6 \quad 5 \quad 5$. The second system's tablature is: $6 \quad 5 \quad \sharp \quad 6 \quad 5 \quad 3$.

Musical score system 1, featuring a grand staff with two treble clefs and two bass clefs. The music is in a key with one flat and a 3/4 time signature. The first two staves contain the main melody and accompaniment. The third and fourth staves are mostly rests. The fifth staff contains a bass line with some notes. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A key signature change to two flats is shown at the end of the system.

9 6 # 7 6 7 5 # 6 3 9 6 9 6 6 5 9 6 7 5

7 6 7 6 5 # 7 6

Musical score system 2, continuing the piece. It features the same grand staff layout. The first two staves continue the melody and accompaniment. The third and fourth staves have more notes. The fifth staff continues the bass line. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A key signature change to one flat is shown at the end of the system.

5 6 3 6 6 # 9 6 6 9 6 4 9 6 4 6 9 6 6

5 6 3 9 6 4 9 6 4 6 9 6 6



Musical score system 1, featuring a grand staff with two treble clefs and two bass clefs. The music is in a key with one flat (B-flat) and a 2/4 time signature. The first system contains 8 measures. The second system contains 4 measures. The bass line includes the following fingering numbers: 9 6 7 5 6 # 6 7 6 # 7 6 # # 6 6 4 6 6.



Musical score system 2, continuing the piece. It features the same grand staff and key signature. The first system contains 8 measures. The second system contains 4 measures. The bass line includes the following fingering numbers: 4 6 # 9 6 7 6 # 7 b 6 # b # 6 9 6 7 6 # b b.

THE AUGURS OF SPRING
DANCES OF THE YOUNG GIRLS
LES AUGURES PRINTANIERES
DANSES DES ADOLESCENTES

13 Tempo giusto $\text{♩} = 50$

C. ing.

Fag. 1
2

1 & 2 senza sord.
sf sempre

1.2
3.4
5.6
7.8
Cor. in Fa

13 Tempo giusto $\text{♩} = 50$

arco (non div.) sempre simile

VI. II

Tutte (non div.) sempre stacc. sempre simile

Vle.

Tutti arco (non div.) sempre stacc. sempre simile

Vc.

Tutti arco (non div.) sempre stacc. sempre simile

Cb.

f sempre stacc.

14 Solo

C. ing.

Fag. 1
2

1.2
3.4
5.6
7.8
Cor. in Fa

14

VI. II

Vle.

Vc. pizz. meno f

Cb.

f come sopra

f come sopra arco

f come sopra

f come sopra

15

Fl. picc. 1 2

Ob. 1 2

C. ing.

Cl. picc. in Re

Cl. in Sib 2 3

Cor. in Fa 1 2 3 4 5 6 7 8

Tr. in Do 1

come sopra

mf

Solo con sord.

15

Vi. I

Vi. II

Vle.

Vc.

Cb.

pizz.

16

Db. 1 2 3

Ing.

Bg. 1 2

Tr. in Do 1

mf

1. 2 a 2

16

Vi. I

Vi. II

Vle.

Vc.

Cb.

(pizz.)

f

pizz.

poco meno f

pizz.

poco meno f

18

18

picc. 1, 2

Fl. gr. 1, 2

Cl. alto *sim.*

Ob. 1, 2 a 2, 3

Ing.

picc. in Re *sim.* muta in Mi \flat

in La 1 *sim.* muta in Si \flat

in Sib 2, 3 *sim.*

Fag. 1, 2

Clar. in Fa 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8

picc. in Re *sim.* senza sord.

in Do 1, 2, 3, 4

Vi. I, II *div.* *unis.* *arco* *f* *(non div.)* *sempre sim.*

Vle. *arco* *come sopra* *f* *(non div.)* *sempre sim.*

Vc. *arco* *come sopra* *f* *(non div.)* *sempre sim.*

Cb. *arco* *come sopra* *f* *(non div.)* *sempre sim.*

**MUSIKAREN ETA
DANZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA
Y DE LA DANZA**

Jarraibideak

Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal):

1. Obraren iruzkina eta analisisa (5 puntu)

Azterketa eta iruzkina egiteko, CD bat emango da, aztertu beharreko obra edo obraren zati bat entzuteko, bai eta partitura zatiak ere. Nahi adina ohar egin daitezke partiturari buruz, eta egindako probarekin batera itzuli beharko zaio epaimahaiari.

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta azterketa:

- a) Obraren ezaugarri estilistiko eta formalak (2,5 puntu).
 - Konposizio-ezaugarriak: alderdi melodikoak, erritmikoak, harmonikoak — konposizio-baliabideak— (1 puntu).
 - Tinbrea: instrumentazioa, erabiltzen diren instrumentuak edo ahotsak... (0,25 puntu).
 - Testura: linea melodikoak eta akordeak konbinatzeko modua (0,50 puntu).
 - Forma: konposizioaren eskema, ideia musikalak antolatzeke modua, testuaren eta musikaren arteko lotura... (0,50 puntu).
 - Generoa: musika purua, deskribatzailea, programatikoa, dramatikoa, herrikoa, Mendebaldekoa ez dena, hirikoa, jazza... (0,25 puntu).
- b) Testuinguruaren egoera eta karakterizazioa (2,5 puntu).
 - Obraren fitxa: egilea, garaia, estiloa, kokapen geografikoa (0,50 puntu).
 - Alderdi sozio-politikoak eta ekonomikoak (0,50 puntu).
 - Garai horretako arte- eta musika-korronteak (0,50 puntu).
 - Aztertutako obra zer alderdi estetikitokan kokatzen den (0,50 puntu).
 - Musikagilearen ideia artistikoak (0,50 puntu).

Entzunaldiaren iruzkinean eta azterketan, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

2. Musikaren eta/edo dantzaren historiari buruzko testu labur bati buruzko iruzkina (2,5 puntu)

Testuan agertzen diren pertsonaiak izango ditu oinarri iruzkinak. Nor diren, nongoak diren eta noiz bizi izan ziren. Musikari egindako ekarpenak. Garai horretako arte- eta musika-korronteak. Testuinguru sozio-politikoa.

Balioetsiko dira koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

3. Sei musika-terminoren definizioa (2,5 puntu).

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak izango dira bakoitzerako. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko dira, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.